

Iparraldeko Basoa



Iparaldeko Basoa oso ezaguna zen eskualdean, zuhaitzik handienak, belardirik berdeenak eta lorerik politenak hantxe zeudelako.

Halako edertasuna hodeiei esker zuen basoak, hodeiek egunero-egunero zeharkatzen baitzuten basoa, euri-tantak botatzeko. Hodeien Biltzarra arduratzen zen hodeiak lurralde osoan banatzeaz, eta bakoitzari bere eginkizuna zehazteaz. Eraitza ezin hobeak lortzen zituzten horrela.

Gainera, hodeien lanari esker, basoa mehatxu arriskutsu bati aurre egiten ari zen: Basamortu Marroiari. Basamortua Iparraldeko Basoaren ertz batetik oso gertu zegoen, eta munstro goseti bat bezalakoa zen, dena hondarrez estaltzeko prest zegoena. Hodeien Biltzarrak bazekien Basamortu Marroia uxatzeko modu bakarra basoa heze mantentzea zela, ura zelako basamortuaren etsai nagusia.

Basoa ureztatzeaz arduratzen zen hodeietako bat Hodeitxo zen. Izugarri atsegin zuen bere lana, txoriekin batera hegan ibil zitekeelako basoan barna. Basoko bazter guztiak ezagutzen zituen.



Baina inoiz ez zen Basamortu Marroira joan. Oso arriskutsua zela esaten zioten, eta bertako tenperatura hain zela beroa, ezen hodeiak berehala desagertzen baitziren hara iritsi orduko.

Egun batean, jakin-mina piztu zitzaion. «Egia ote da basamortu hori zeharkatzean hodeiak lehortu egiten direla?», pentsatu zuen. «Hurbildu egingo naiz», erabaki zuen.

Basoaren bukaerara iritsi zenean, guztiz bestelako paisaia bat ikusi zuen. Han ez zegoen ez zuhaitzik, ez zuhaixkarik, ez lorerik... Hondarrez beteta zegoen! Pixka bat aurrerago joatean, tenperatura igotzen hasi zela konturatu zen. Hodeitxo izerdi-patsetan zegoen.

- Esaten duten bezain arriskutsua ote da? Jasango al dut halako beroa?

Baina, haraino joanda, aurrera jarraitu behar zuela erabaki zuen. Bat-batean, ahots bat entzun zuen:

- Eh! Kaixo!

Hodeitxok lurrera begiratu zuen, baina ez zuen inor ikusi.

- Hemen behean gaude! Etorri!

Berriro begiratu zuen, arreta handiagoz. Orduantxe, bi landare txiki ikusi zituen. Bakoitzak hiru hosto besterik ez zeuzkan. Hodeitxo kontuz-kontuz hurbildu zen haiengana.

- Hodeiak oso gutxitan etortzen dira hona. Zertan zabilta zu hemen? -galdetu zion Goizanek, landare handienak.

- Basamortu Marroia nolakoa den ikustera etorri naiz, eta esaten dutena egia den jakitera.

- Zer esaten dute ba? -galdetu zion Amalurrek, ahizpa txikiak.

- Ba oso leku beroa dela, eta inor ezin dela bertan bizi, dena lehortu egiten delako.

- Jajaja! -barre egin zuten bi landareek-. Ba gu hemen bizi gara, eta ez gara lehortu! Hala ere, basamortuan bizi ahal izateko, egokitu egin behar izan dugu. Hemen ezin da edonor bizi.



Basamortuko landareak bereziak zirela ikusi zuen Hodeitxok. Izan ere, hainbat egun igaro zitzaketen batere urik gabe!.

- Guk kontu handiz gordetzen ditugu euri-tantak. Ikusi gure sustraiak: ez dira beste landare batzuenak bezain sakonak, baina, lurrazaletik gertu egotean, hobeto aprobetxatzen dute hezetasuna, bizirik irauteko -esan zion Goizanek.
- Basamortuan bizi garen arren, ez gara lehortu. Bizitza osoa eman dugu ur-tanta bakoitza ahalik eta ondoen aprobetxatzeko zer egin behar dugun pentsatzen. Baina aspaldi honetan ez da hodeirik etortzen inguru honetara, eta dagoeneko oso ur gutxi gelditzen zaigu. Ur pixka batekin nahikoa genuke bizitzen jarraitzeko -esan zuen Amalurrek.
- Baina nik ezin dizuet nire ura eman. Nire eginkizuna bete behar dut. Egunero-egunero, Iparraldeko Basora eraman behar ditut ur-tantak, Basamortu Marroiaren atzaparretan eror ez dadin. Ezin dizuet tantarik eman -esan zien Hodeitxok.
- Tanta gutxi batzuk besterik ez, mesedez! -eskatu zion Amalurrek . Horrekin, nahikoa genuke bizirik jarraitzeko. Gainera, basamortuari aurre egiteko modurik egokiena landareak basamortuan bertan sortzea da. Horrela, utzi egingo dio basamortu izateari!


Amalur zuzen zebilela konturatu zen Hodeitxo.

- Orain bertan ez daukat tantarik, baina bihar ur pixka batekin itzuliko naiz! -esan zien.

Etixerako bidean, Hodeitxo pentsakor joan zen. Lagundu egin nahi zien Goizaneri eta Amalurri, baina ez zekien nola.

Hurrengo egunean, euri-tanta batzuk gorde, eta bi landareengana joan zen, ur pixka bat ematera.

- Eskerrik asko, Hodeitxo! -esan zioten bi landareek, pozez gainezka. Zeinen atsegina den ur freskoa! Ia ahaztuta geneukan!



Hodeitxo asteko egun guztietan joan zen Basamortu Marroiko landareak ureztatzen. Harrigarria zen bere lagunak egun batetik bestera zenbat hazten ziren, tanta gutxi batzurekin! Egun batean, esnatu zirenean, Goizanek eta Amalurrek landaretxo gazte pila bat ikusi zituzten beren inguruan. Landare berriak jaiotzen ari ziren!

Baina Hodeitzar konturatu egin zen gertatutakoaz, eta haserre bizian jarri zen:

- Hodeitxo! Gu engainatzen zabilta! Tantak zuretzat gordetzen dituzu! -oihukatu zion Hodeien Biltzarrean.

Denak Hodeitxori begira jarri ziren, harrituta:


- Egia da, bai. Egunotan, tanta batzuk gordetzen ibili naiz. Baina ez dira niretzat; laguntza behar duten bi lagunentzat dira. Bi landararentzat -esan zien.
- Hemen, Iparraldeko Basoan, landare batek ere ez du laguntzarik behar. Denek dute ura, guk oso ondo egiten dugulako gure lana -esan zuen Hodeitzarrek.
- Landare horiek ez daude gure basoan.
- Hara! Hori besterik ez genuen behar! Beste baso bateko landareak ureztatzen ari zara, beraz! Hau lotsa!
- Ez dira basoan bizi, Basamortu Marroian baizik.
- Basamortu Marroian bizi direla? -denak elkarri begira jarri ziren, ikaratuta-. Nolan joan zara hara? Ergel halakoa! Gure basoaren ura baimenik gabe erabili duzu!

Hodeitxok, orduan, ikusitako guztia kontatu zien, eta landareak laguntzaren beharrean zirela esan zien:

- Baina hori ez da gure arazoa! -esan zuen Hodeitzarrek-. Guk gure landareez arduratu behar dugu, ez Basamortu Marroikoez.
- Gainera, basamortua ez da landareak bizitzeko leku egokia. Ez dugu gure ura bi landare tuntunengatik xahutuko! -bota zuen beste batek.
- Oker zaudete -esan zien Hodeitxok-. Ezin hobeto aprobetxatzen dute daukaten ur apurra. Laguntza pixka bat besterik ez dute behar, haien biltokia betetzeko. Basamortuan ez da hodeirik ibiltzen. Gainera, bada gure arazoa ere! Basamortu Marroia etengabe ari da aurrera egiten, eta, ezer egiten ez badugu, urte gutxi barru gure basoa desagertu egingo da, eta gu ere desagertu egingo gara.

Orduan, zuhaitz zaharrenetako batek hartu zuen hitza:

- Hodeitxo zuzen dabil. Ni txikia nintzenean, Basamortu Marroia oso urruti zegoen. Denek hitz egiten zuten hari buruz, baina oso zuhaitz gutxik ikusi zuten. Orain, ordea, sustraietan sentitzen dudan beroaren bidez, gertu dagoela nabari dut.
- Beraz, nork lagunduko nau? Nork egin nahi dio aurre Basamortu Marroiari, eta nork salbatu nahi du gure basoa? -galdetu zuen Hodeitxok.



Hasieran, gutxi batzuk bakarrik ausartu ziren Hodeitxorekin bat egiten, baina, pixkanaka, gero eta gehiago elkartu ziren berarekin: batzuk, Goizaneri eta Amalurri laguntzarren; beste batzuk, basoaren etorkizuna salbu ikustearren.

Hodeien Biltzarrak erabaki garrantzitsu eta pozgarri bat hartu zuen: handik aurrera, Basamortu Marroia ere ureztatuko zuten. Horrela, hango landareak hazten eta ugaritzen joan ziren. Iparraldeko Basoan, bazekiten basamortuaren atzaparretatik ihes egitea oso zaila zela, baina garbi zeukaten denen laguntza ezinbestekoa zela eginkizun horretan. Izan ere, Hodeitxok esaten zuen bezala:

Ekaitzak tanta batekin hasten dira beti, baina tanta bakar batek ezin du basamortua geldiarazi.

